



Haur hizkeraren erabileraz*

Juan Jose Zubiri

Lan honen helburu nagusia haur hizkera nolakoa den erakustea da. Honekin batean, “haur hizkera” terminoen definizioa zehaztu eta hizkera honetako ezaugarri garrantzitsuenak, orokorrak eta euskarazkoarenak, zein diren azaltzen dira.

*Ondoren, hiru ardatzen inguruan antolatu da gaia: **noiz** erabiltzen den, **nork** jotzen duen hizkera honetara eta **nola** erabiltzen den benetan. Azken puntu hau jorratzean, hizkuntzaren hiru habe nagusiak ukitzen dira (fonetiko-fonologikoa, morfosintaktikoa eta lexikoa), eta sailez sail arruntean hartuz, nolako gertakariak izaten diren aurkezten.*

Lanean zehar agertutako datuetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak honako hauek dira: hizkera honetako ezaugarrien erabilera helduen esku dago, ez da batera erregularra eta muga (nahiko) finkoak ditu.

1. Sarrera

Haur hizkeraz hitz egiten denean argitu beharreko lehenbiziko gauza da, zehazki esateko, zer den termino hauekin adierazi nahi dena, izan ere, izenburu horren azpian eremu desberdinei dagozkien ikerketak sartu izan baitira.

Hasteko esan dezakegu, zenbait autorerentzat haur hizkera haurren hizkera dela, hots, haurrek hizketan ikasten dutenean erabiltzen duten hitz egiteko modua edota, helduen eredura iritsi bitartean, ikasten ari diren hizkuntzako hitzak ebakitzeko eta esaldiak eraikitzeke darabilten era.

Hizkuntzaren bereganatze prozesu honetan hainbat gertakari aurkitu bide dira. Haurraren jokaeran, maila fonetikoan, esate baterako, ohikoa da egitura fonikoa errazagotzeko kontsonante multzoak sinpletzea (cf. p(l)aza, p(r)akak,...), beste batzuk ezabatzea (cf. sa(r)tu, sa(l)tatu,...), ahoskatzeke “zailak” direnak ordezkatzeko (cf. ekarri > ekali, ikusi > ikuxi,...), e.a..

Maila morfosintaktikoan, berriz, ez da harritzekoa hainbat egituraren erabilera desegokia kausitzea (hitzen ordena aldrebesa, izen sintagmaren erabilera ezegokia, aditz komunztaduraren hutsegiteak, haurrak “sortzen” dituen formak, e.a.). Gainerakoan, arlo semantikoan nahiko arruntak dira espazioari eta, batez ere, denborari dagozkion nozioak erabat zuzen ez erabiltzea. Hortaz, autore hauentzat gertakari hauen denen berri ematea eta deskribatzea izanen litzateke haur hizkera aztertzea.

Beste zenbait autorerentzat, ordea, haur hizkera beste eremu batera mugatzen da, hots, haur txikiei zuzentzerakoan helduek erabiltzen duten barietate berezi horretara, eta ez arestian aipatutako haurrek berek hitz egiten duten hizkuntza “trakets” edo “hizkuntzarteko” horren azterketara. Beharbada azken arlo hau izendatzeko egokiagoa litzateke *haur hizketa* deitzea *haur hizkera* baino.

Alde honetatik, gure azterreremua zein den argi uzteko asmoz, helduek erabiltzen duten barietate honi *ama hizkera* (“*motherese*”) deitu izan diote, edo baita *haurrei zuzendutako hizkera* ere (“*Children’s directed speech*”, “*CDS*” laburtzapenetan) (Snow 1986).

Gure ingurumari honetako hainbat autore haur hizkeraz mintzatu direnean (cf. Azkue (1891), Lekuona (1978), edo berrikiago Aurkerena et alii (1999), eta beste hainbat) hizkera honetaz iruzkintxo bat edo beste egin eta batez ere –edo batik bat– hitz andana bat ematera mugatu izan dira. Hemengo ikertzaile gehienentzat, beraz, haur hizkera, gutxi-gehiago, haur txikiekin erabiltzen den hiztegia dateke.

Artikulu honetan haur hizkeraz mintzo garenean, haurrei zuzentzen zaien barietate bereziaz ari gara. Baina barietate hau ez dago hiztegi bereziaz bakarrik osaturik; beste hainbat osagai ere baditu, hala nola doinu aldaketak, hizkera normaleko zenbait hots edo fonema aldaketak, partikula batzuen erabilera morfosintaktiko bereziak eta, jakina, hiztegi berezia, haur txikiekin bakarrik erabiltzen den hiztegia.

Esan daiteke, hortaz, okertzeko inolako arriskurik gabe, hizkera honek ezaugarri jakinak dituela bai erabiltzeko moduaren aldetik (aurreraxeago ikusiko denez), bai erabilgunearen aldetik (ezin baita noiznahi edo nonahi erabili) eta baita, neurri batean, erabiltzaileen aldetik ere. Hori dela eta, hizkuntzaren zinetako azpisistematako hartu izan da (Richelle, 1986: 87).

Euskararen kasuan, gainera, baieztapen hau onartzeko zalantza gutxiago sortzen da, hizkera honek dituen desberdintasunak nabarmenki agerian gelditzen baitira hizkuntzaren maila guztietan, bai maila fonetikoan, nola maila morfosintaktikoan, nola hiztegi mailan.

Azpisistema honen helburuetako bat hizkuntza arruntaren munduan murgiltzeko bidea erraztea da nonbait, helduen hizkerara iristeko pauso bat besterik ez baita, ezaugarri bereziak eta bereizleak dituen bitarteko bat besterik ez. Ez dago esan beharrik zenbait heldurentzat hizkuntza erakusteko ez dela inolako bitarteko hizkerarik behar, askoz ere hobe dela zuzen-zuzenean helduena erakustea besterik gabe.

Datuei dagokienez, azken urteotan haur hizkuntzaren jabekuntzaren esparruan Itziar Idiazabalen gidaritzapean lanean diharduen ikerketa talde batek jasotako datuetatik atera dira hemen erakusgarritzat dakartzagunak, bereziki haur euskaldun elebakar baten jabekuntza prozesuari dagokion corpusekoak dira. Arakatzeko lan hau corpus honetan bestetan ez da burutu, gainerakoetan –arrazoi desberdinak direla medio– ez delako hain txukun eta argi ikusten barietate honen erabilera.

Aipatutako datu horiek biltzeko eta atontzeko metodologiaren gainean norbaitek xehetasun gehiago nahi balitu jo lezake, esaterako, Mahlau-ren (1994) eta Zubiriren (1999) lanetara. Edo bestela, labur-xurrean, esan daiteke datuak modu sistematikoan jaso direla, horretarako, 1;03 (urte eta hiru hilabete) eta 4;00 (lau urte) arteko haurraren inguru ezagunean –gehienetan bere etxean– era naturalean eta guztiz espontaneoan, inolako prestakuntzarik gabe, bideokamararekin hamabostero 30-45 minutu bitarteko saioak burutuz. Ondoren, transkripzioetarako MacWhinney-k (1991) proposatzen duen eredu laburtu eta geuretu bat erabiliz, haurraren eta helduen emanaldi linguistiko guztiak jaso dira, besteak beste*. Lan honetan erakusgarritzat ematen diren adibideak helduek haurrari zuzenduriko emanaldi horietatik atera ditugu.

Lan honen helburua, geroeneko txandan (Zubiri, 1995) azaldutako ezaugarriak orain iraztean aipatu ondoren, haur hizkera zinetan nola erabiltzen den erakustea da. Horretarako, hiru aldagai hartuko ditugu ardatzako. Alde batetik, barietate hori **noiz** erabiltzen den azalduko dugu, beste aldetik **nork** erabiltzen duen, eta azkenik, aipatu ditugun hizkuntzaren hiru mailetan **nola** erabiltzen den.

2. Haur hizkeraren ezaugarriak

Haur hizkerak, jakina den bezala, hizkuntzako beste edozein barietate edo erregistrok bezala, bere ezaugarri bereziak ditu. Ezaugarri hauek, alde batetik, orokorrak izan daitezke, hau da, gure inguruko hizkuntza guztietan haurrekin hitz egiterakoan helduek erabiltzen dituzten baliabide eta estrategia linguistiko orokorrak dirateke, eta beste aldetik, haur hizkerak euskal hizkuntzaren barrenean bere-berezko dituen ezaugarri zehatz batzuk aurki daitezke, hots, euskarak beste hizkuntzak ez dituen ezaugarriak.

2.1. Ezaugarri orokorrak

Azkenaldi honetan, batez ere Snow eta Ferguson (1977) ikertzaileen lanaren ondotik, gai honen inguruan jardun duten autoreen artean halako adostasun-maila altua dago hizkera honek zein ezaugarri dituen eta zein paper jokatzeko duen esateko garaian. Alde honetatik, nahiko argi eta garbi gelditu da hizkera honek (“*motherese*” deitutakoak) honako ezaugarri hauek dituela (Rondal 1990: 15-53; Serra et al. 2000: 165-171).

- *Ikuspuntu fonetikoaren arabera*: zuzena eta ongi ahoskatua; tonuaren aldetik helduekin erabiltzen dena baino markatuagoa eta enfatikoagoa da, eta erritmoaren aldetik pittikaren bat motelxeagoa.
- *Ikuspuntu morfosintaktikoaren arabera*: perpausen egitura helduei (edota haur handiagoei) zuzentzen zaiena baino sinpleagoa da, eta gramatikalki zuzen eraikia.

- *Ikuspuntu lexikoaren arabera*: hiztegi berezia erabiltzen da. Haurren *orain eta hemen* hurbiletik abiatuz pixkanaka zabaltzenagotuz joaten den hiztegia.
- *Ikuspuntu pragmatikoaren arabera*: helduak duen hizkuntza maila haur txikiak duen gaitasun mailara egokitzen da, hau da, haurrak bere hizkuntza gaitasunean aurreratu ahalean goitzen du maila helduak.

Ezaugarri hauek denak –eta, ez luzatzearen, hemen aipatuko ez ditugun beste zehatzagoko batzuk– betetzen dituzte, gutxi-gehiago, gure inguruko hizkuntza guztiek.

Helduek hurrei zuzendutako hizkera dela eta, oro har, duen eginkizuna aintzat hartuz, esan daiteke paper zuzentzailea, pedagogikoa edota didaktikoa betetzen duela.

2.2. Euskarazko haur hizkeraren ezaugarri nagusiak

Ezaugarri orokorrez landara, euskarazko haur hizkerak berezko berezitasunak ditu; gainera, formalki –formaren edo itxuraren aldetik, alegia– begibistakoak diren eta agerian dauden ezaugarriak aurki daitezke. Lehengo batean (Zubiri, 1995) saiatu ginen ezaugarri horiek biltzen eta nolabait multzokatzen hizkuntzaren hiru maila nagusietan: maila fonetikoan, maila morfosintaktikoan eta maila lexikoan. Badira zenbait urte lan hura argitaraturik, eta oraingoan axaletik baizik ez dugu aipatuko han esana.

• *Maila fonetikoa*

Maila honetan suertatzen diren gertakariak kontsonanteen arlora mugatzen dira, eta zehazkiago esateko “txistukari” deitzen zaien kontsonanteen eremura. Hizkera honetan txistukariak busti egiten dira, edo nahiago bada, sabaikaldu egiten dira. Jakina, berez bustiak diren kontsonanteek ez dute inolako aldaketarik jasaten. Beste modu batera formulatzez gero, horrela egin daiteke: [- sabaikari] → [+ sabaikari] bihurtzen da (ikus .1). Arau hau aipatutako fonema horietakoren bat daraman edozein hitz motari ezar dakioke: izenei (arruntei, bereziei), izenordainei, adjektiboiei, aditzei, adizlagunei,...

.1: Txistukarien saillean gertatzen diren aldaketa fonetikoak

Hotsa	Aldaketa fonetikoa	Adibideak
s	> x	<i>esku > exku, su > xu, asto > axto, sartu > xartu, oso > oxo,...</i>
z	> x	<i>zakur > xakur, izutu > ixutu, zu > xu, zatorz > xatorz, zer > xer,...</i>
x	= x	<i>ez da aldaketa fonetikorik gauzatzen.</i>
ts	> tx	<i>isats > ixatx, itsusi > itxuxi, hautsi > hautxi,...</i>
tz	> tx	<i>arrautza > arrautxa, hotz > hotx, motz > motx, utzi > utxi,...</i>
tx	= tx	<i>ez da aldaketa fonetikorik gauzatzen.</i>

Kontsonanteen arloan sabailkatze-gertakaria usuen itxuraldatzen duen saila txistukariena izan arren, badira beste kontsonante batzuk ere antzeko prozesua jarraitzen dutenak (ikus .2). Azken hauen zabalkundea eta erabilera urriagoa da, noski.

.2: Beste zenbait kontsonanterekin gertatzen diren aldaketa fonetikoak

Hotsa	Aldaketa fonetikoa	Adibideak
d	> dd	<i>adarra > addarra, ederra > edderra,...</i>
t	> tt	<i>kontua > konttua, bat > batt,...</i>
r	= ll (dd)	<i>beroa > belloa, burua > bullua,...</i>
rr	> ll (dd)	<i>ekarri > ekalli, etorri > etolli,...</i>
l	> ll	<i>polita > pollita, pala > palla,...</i>

Hortaz, ezaugarri fonetiko-fonologikoak –eta berriz azpimarratu nahi dugu– fonema-aldaketan bidez, sabailkatze-prozesu baten bidez, gauzatzen dira.

• *Maila morfosintaktikoa*

Bi-hiru ezaugarri nagusi aipa daitezke maila honetan. Hasteko, hizkera honetan aditz laguntzailea ezabatze joera handia dago. Haur literaturan, batez ere poesian eta kantuetan, erruz –edo maiztasun handiarekin behinik behin– erabiltzen den baliabidea da. Euskararen jabekuntza prozesuan adizlaguntzailearen ikasketak arazoak sortzen dizkie haurrei, nahiko izaera konplexua duelako (Ezeizabarrena 1996). Ez da harritzekoa, hortaz, ikasteko zailtasuna erakusten duen elementua (adizlaguntzailea) ezabatzea (1-3), bereziki elementu horiek ordezkari ditzaketen izen sintagma “osoak” agertzen baldin badira. Horrela, semantikoki eta funtzionalki garrantzitsuak diren elementu guztiak agerian emanez, komunikazioa ziurtatua gelditzen da.

- (1) Nik *ekarri* eta zuk *eman*.
- (2) Etorri, nik (zuri) *emango* yogur.
- (3) Zer *egiten* Oihanak zuri?

Bigarrenik, arlo honetako beste ezaugarri bat aipatzearen, esan behar da haur hizkeran erabiltzen diren hitz zenbaitek ez daramatela artikulurik; beraz, izen bereziak bezala deklinatzen direla (4-6).

- (4) Non da *pitxitxi* (*pitxitxia)? (Haur hizk. *pitxitxi* = Helduen hizk. *katua*).
- (5) Hartu *brun-brun* (*brun-bruna).
- (6) Tori *ñañan* (*ñañana).

Hitz berezi hauen pluraleko aldaerak nola eratzen diren polikiago aztertu beharra dago, arazo bitxiekin egiten baitugu topo. Baina lantegi hori beste bateko, patxada gehiagorekin aztertze, utziko dugu.

Hirugarrenik, eta azkenik, azpimarratu nahi diren sintagmak esaldiaren hasieran eta bukaeran –bi tokietan– paratzeko joera dago (7-9).

(7) *Ama non da ama?*

(8) *Amona etorri da amona.*

(9) *Zer egin du Egoitzek zer?*

Joera hau, euskaraz sintagmek mugitzeko duten ordena askeak errazten du, eta azpimarratu nahi den elementua, hau zein baita ere, esaldiaren hasieran eta bukaeran ipintzen da, hain zuzen ere esaldiaren kokagunerik garrantzitsuenetan, komunikazioaren ikuspuntutik begiratuta bederen. Alde horretatik, zenbaitetan zaila suertatzen da (7-8) bezalako esaldietan etenak non egin behar diren zehaztea, nahiz paratu dugun (9). adibidean errazago antzeman daitekeen.

• *Maila lexikoa*

Hiztegiaren arloa da orain arte gehien ukitu izan dena. Gure historian zehar hainbat autore aurki daitezke haur hizkerako hiztegia jasotzen saiatu direnak. Ez oraintxeakoak dira, esaterako, Azkuek (1891: 24-25) eta Zamarridak (1915: 49-50) jasotako bildumak; hurbilxeagokoa da M. Lekuonak (1978: 569-573) bildutako hiztegitxoa eta hizkera honi buruz egiten dituen iruzkin interesgarriak, eta bertagokoak Zubimendi/Esnalek (1993: 130-132) edo Aurkerena et alii (1999) ematen dituzten hitz zerrendak, edo hiztegietan aurki daitezkeenak. Gu gerok ere aritu gara hizkera honetako hiztegiari buruzko xehetasunak ematen goian aipatutako lanean.

Bestalde, badakigu azken urte hauetan han-hemenka argitaratzen diren herri-aldizkarietan ere, tokian tokiko aldaerak jaso, halako zerrendak edota bildumak egin izan direla. Interesgarria izanen litzateke alor honetan lekukotasun hauek denak hartu eta hiztegi orokor bat osatzea.

Oro har, bi hitzetan laburbiltzeko, hizkera honetako hitzen ezaugarriak nahiko agerian gelditzen dira. Alde batetik, izaera onomatopeikoa dute hitz frankok (cf. *mu, miau, be-be, brun-brun,...*), baina beste batzuk hizkera honetako bere-berezkoak dira (cf. *kaka* ‘zikina, txarra’, *nini* ‘haur’, *mama* ‘ura, edaria’, *papa* ‘ogia’, *txitxi* ‘haragia’, *pitxitxi* ‘katua’, *toto/totto* ‘txakurra’, *punpa* ‘erori’,...).

Beste aldetik, hitzen nolakotasunari erreparatuz gero, ohar gaitezke eratzeko modua arrunt sinplea dela. Batzuetan silaba bera errepikatuz osatzen dira (cf. *tas-tas* ‘jo’, *txitxi* ‘haragia’,...); beste batzuetan oso antzekoak diren silabak hartzen dira eraketarako (cf. *ñañan* ‘jatekoa’, *papo* ‘bukatu da, desagertu da, akabo’, *uau-uau* ‘zakur’, *plisti-plasta* ‘bainatu’, *txixta* ‘indizioa paratu’, *kixka* ‘moztu’,...).

Bakan batzuk badira, hala ere, helduen hiztegiaren itxura dutenak (cf. *mainak (egin)* ‘setatu, tematu, negar egin, marru egin...’, *maite-maite (egin)* ‘besarkatu, pailakatu, laztandu’, *pake-pake (egin)* ‘paketu, pakeak egin behatz erakusleak ukituz’,...).

Orain arte hizkera honetako ezaugarri nagusiak zein diren azaldu ditugu, baina azter dezagun orain nolakoa den egiazko erabilera.

3. Haur hizkeraren erabilera

Erabileraren eremua aztertzeko hiru arlori buruz hitz eginen dugu lan honetan: 1) **noiz** erabiltzen den, hau da, helduak eta haurrak elkarrekin duten harremanetan zein egoeratan eta zein unetan erabiltzen den; 2) **nork** erabiltzen duen, hots, heldu batzuek hizkera honetara jotzeko beste batzuek baino joera handiagoa dutenez, nolabaiteko tipologiarik proposa daitezkeen edo ez ikusiko da; eta 3) **nola** erabiltzen den hizkuntzaren ikuspuntutik, bestela esateko, hizkuntzaren aldetik zein ezaugarri morfo-sintaktiko aurki daitezkeen hizkera honen erabileran.

3.1. Noiz erabiltzen da?

Galdera honi bi-hiru modutara erantzun dakioke, nondik heltzen diogun. Hasteko, esan behar da tarteak edo mugak paratzeko garaian beti haurraren adina hartzen dela aintzakotzat, haurraren garapenaren arabera jokatzen baitu helduak.

Dena dela, argitu behar da haurraren adinaz edo garapenaz ari garenean bai adin/garapen kronologikoaz eta bai linguistikoaz ari garela; normalean biak paretsuan badoaz ere, gerta liteke zenbait kasutan –eta ez da batere arraroa– batean aurreratuago egotea bestean baino.

Esaterako, 6-10 hilabete inguruko haurrei kasu egin nahi zaienean eta hauek erantzunen bat ematea espero denean –ez du nahitaez erantzun linguistikoa izan behar–, hizkera-mota honetara jotzea ez da batere arrotz egiten. Komunikazio ahalegin hauetan helduak haurraren arreta bereganatzeko halako estrategia berezi batzuk erabiltzen ditu: haurraren gaitasunak hurbiltzea, keinu eta imintzio (arrunt) deigarriekin hitz egitea, hizkuntzaren tonua izugarri aldatzea, txistukariak sabailkatzea, e.a.

Helduen jokamolde hau nahiko ohikoa dela esan daiteke haurrak hizketan ez dakien bitartean (haurraren aro aurrelinguistikoan); baina gutxi gorabehera 2. urtearen inguruan, behin mintzatzen hasten denez geroztik (hau da, haurra aro linguistikoan sartzen denetik aurrera), hitz egiteko modu hau, neurri handi batean bederen, alde batera utzi eta helduen eredu linguistiko arrunta hartzen da.

Hori dena ez da une batetik bestera gertatzen, alderantziz baizik, prozesu luzeantx batetik igarotzen da; gainera, heldu guztiek ez dute modu bereira jokatzen, jokaera hori haurrarekin batera sortzen diren –edo sortu nahi diren– harremanetan oinarritzen baitira. Haurra aro gramatikalean sartzen denean, gurasoek, esaterako, berehala utziko diote hizkera hau erabiltzeari haurrak eredu “ona”, “normala” lehenbailehen izan dezan.

Plazara daitezkeen beste galdera honako hau da: noiz arte erabiltzen da hizkera hau? Edo bestela esateko, erreferentziatako haurra bera hartuz, zein adin arte erabil daiteke barietate hau? Zuzenean erantzutea zail egiten da, erabileraren auzia helduen esku baitago hein handi batean (aurraxeago ikusiko den bezala), baina esan daiteke, oro har, haurra aro linguistikoan sartzen denetik aurrera ez dela erabiltzen hizkera hau, edo erabiltzen bada gutxitzen joaten dela behinik behin, eta adin jakin batetik aurrera bazterrean uzten dela erabat.

Dena den, haurra aro linguistikoan sartua –edo sartu berria– egon arren, haur hizkera hau une oso berezietan eta jakinetan ere erabiltzen ahal da.

Ez da harritzekoa, esaterako, umeak min hartzen duenean, lurrera erortzen denean edo negar eta marru dagoenean amak hurbiltasun berezi bat bilatu nahi izatea eta, horretarako, besteak beste, hizkera honetaz baliatzea.

Imitazio-gertakarietan ere agertzen dira erregistro honen arrastoak. Adibide bat paratzeko, zenbait haurri txistukarien saileko kontsonante guttiak zuzen ahoskatzea nekeza suertatzen zaie eta bustiak bezala ematen dituzte; orduan helduak errepikatu egiten du hark esan duen modu berberean (agian, joko moduan, ongi ahoskatu ez duela adierazteko edo). Ikus (21-23) adibideak.

Hizkera honetako ezaugarriak direla eta, denboran zehar gehien irauten duen elementuetako bat, seguru aski, hiztegiko hitz bakanen bat izanen da. Ez da batere arraroa 4-5 urterekin oraindik ere *txitxi* edo tankeratsuko beste hitzen bat erabiltzea.

3.2. Nork erabiltzen du?

Helduek, jakina. Baina helduen artean badaude batzuek besteek baino gehiago erabiltzen dutenak, eta hauetaz hitz egin nahi dugu hain zuzen ere.

Argi utzi dugu heldu batzuek, arrazoiak direnak direla, ez dutela erabiltzen –eta ez dutela erabili nahi ere– hizkera hau. Beste batzuek, ordea, gehiago edo gutxiago, erabili egiten dute. Bi jarrera hauen berri ematen digu Hernández Pinak (1984) gaztelaniari dagokionez; euskaraz ere antzeko jarrerak daudela badakigu, baina ez dago nahi bezainbat datu zehatz.

Erabiltzen dutenen artean, esan dugu gurasoak direla lehenbizienak hizkera hau alde batera uzten. Haurra hizketan hasi orduko –edo agian lehenxegotik– gurasoek ez dute, oro har, helduen eredia baizik ibiliko. Jokaera honen azpian, zalantzarik ez, erakutsi nahia dago, helburu didaktikoa.

Erabilera hori beranduen uzten dutenen artean, berriz, aiton-amonak daude. Horren zergatia azaltzea ez da erraza; beharbada nolabaiteko hurbiltasun afektiboa bilatuko dute, edo seguru aski bestelako arrazoi psikologikoak izanen dira azpian daudenak, baina gu ez gara ur horietan sartuko.

Aurreko bi jokabideen tartean kokatuko genituzke haurrekin harreman gutxi edota batere ez duten helduak –berdintsu da ahaideak izatea edo ez izatea– eta unetxo batean berarekin komunikazio zuzena lortu nahi dutenak. Hauek haurren garapen linguistikoa zein den zehazki ezagutzen ez dutenez, hizkera horretara jotzeko joera izan dezakete, hurbiltzeko asmoarekin edota errazago ulertuko dielakoan.

Orain arte, behin eta berriro, helduez aritu gara, baina egia da hurrek berek ere erabiltzen dutela hizkera hau. Kontua da jakitea noiztik aurrera, zein adinetik aurrera esan daitekeen barneratu dutela edo “ikasi” dutela. Egoitz haurrari 2;05eko adina (bi urte eta bost hilabete) zuelarik egindako grabaketetako batean, bera baino sei urte zaharragoko anaiak hizkera honetako ezaugarri fonetiko-fonologikoak eta lexikoak erabiltzen ditu anaia txikiarekin solasterakoan.

Aita ohartzen denean, errieta ematen dio, anai txikiari “jator” eta “ongi” hitz egiteko esanez. Hortaz, ziur badakigu 8. urterako haurrak erregistro hau barneratu duela eta erabiltzen ere badakiela. Kontua da adin hori noraino jaits daitekeen zehaztea; seguru gaude zortzi urte baino lehenagotik ere ikasi duela, baina hortxe dago kokka: ez dakigula zenbat lehenagotik zehazki.

3.3. *Nola erabiltzen da?*

Goian, 2.2. puntuan, aipatu ditugu zein diren hizkera honek dituen ezaugarriak gure hizkuntzan, baina orain, egiatan –egoera errealetan– nola erabiltzen den ikusiko dugu mantsoago. Lanean zehar aukeratu dugun azalpen metodologikoari jarraituz, bereizi ditugun hizkuntzaren hiru mailak jorratuko ditugu berriro ere, maila fonetikotik hasi, maila morfosintaktikoarekin segitu eta maila lexikoarekin bukatzeko.

• *Maila fonetiko*

Esan dugu hizkera honetako ezaugarria txistukariak –eta beste hainbat kontsonante– sabaikaltzea dela. Baina haurrekin mintzatzen den aldiro-aldiro helduak ez du, ematen dituen esaldi guztietan eta esaldi bakoitzean agertzen diren kontsonante txistukari guztietan (edo sabailka daitezkeen kontsonante guzti-guztietan) aldaketa fonetiko-fonologiko horiek gauzatzen. Hiztunak askatasun handia du –egia esateko, izugarria– nahi duenean erabili eta nahi ez duenean ez erabiltzeko. Erabilera horren atzean hiztunaren borondatea eta intenzionalitatea daudeke nagusiki, hots, haurrekin sortu eta lortu nahi den harreman-mota.

Aipatutako askatasun hori hain zabala da ezen suerta baitaiteke hitzun batek zenbait kontsonante sabailkatzea eta beste zenbait ez, edo une batean bustitzea eta beste batean, berriz, ez. Orobat, gerta liteke esaldi batean –baita hitz batean berean ere– sabailka daitezkeen kontsonante bat baino gehiago daudelarik, bat (edo batzuk) bustitzea eta beste bat (edo batzuk) bere hala uztea. Hona hemen esandakoaren erakusgarritako adibide bat edo beste (parentesi artean agertzen dena haurren adina da; beraz, esaldia zein adinetako haurrari zuzentzen zaion adierazi nahi da):

- (10) **Putxu-putxu** egin behar al duzu? (1;03)
- (11) Bai **itxuxia** Egoitz! (*Haurrak betaurreko handi batzuk paratzen dituenean aurpegian*). (1;04)
- (12) **Sartu xorroan**. (1;05)
- (13) Behatxarekin egin horrela, Egoitz! (1;05)
- (14) **Dantxa-dantxa** egin behar al duzu? (1;06)

Ondoko esaldietan, aldiz, aldaera arrunta eta haur hizkerakoa ia-ia elkarren segidan agertzen dira:

- (15) Non da **izeba** Argiñe? Non da **ixeba**? (1;03)
- (16) **Zer** da hori? Eh? **Xer** da hori? (1;03)
- (17) Punpa **bota**. Hala! **Botta** eeez! (1;06)
- (18) Aber, jarri hemen eta egin **lolo** zuk! “Oo” egin zuk! Egin zuk **lollo!** (1;05)

- (19) Paratuko al dugu **dantxa-dantxa**? Aber. Bai? Egiñen al duzu zuk **dantza**? (*Izebak irratia pizten du*). Apo **dantza-dantza** (*Irratiaren bolumena jaitsez*). (1;07)
- (20) Ekar **ezazu** pittika bat! Ekar **exaxu**! Ekar **exaxu** attonari pittika bat ekar **exaxu**! (1;06)

Aldaketa fonetiko hauek burutzeko arrazoiak zenbaitetan haurraren ekoizpen linguistikoak berak ere izan daitezke, esan nahi baita horrelakoetan helduari ez zaiola bere gisa ateratzen bustidura, baizik eta haurraren ahoskera “okerrean” oinarrituz imitatu egiten duela. Gutxi edo gehiago bustidura –edo oker ahoskatzen duen soinu– azpimarratuz gauzatzen den imitatze hau jolas moduan-edo egiten du askotan helduak, haurrari nolabait adierazteko ahoskera ez dela erabat zuzena eta behar bezalakoa.

Hizkuntza ikasten ari direnean ahoskatzeko zailtasunak haur guztiek izaten dituzte, batzuek besteek baino gehiago egia esan, baina badira zenbait kontsonante eta kontsonante-multzo haur askori ongi ahoskatzen zailak –edo nahiko zailak bederen– suertatzen zaizkienak; hauen artean txistukarien sail guztia dago. Goitixeago aipatu dugun helduen imitazioaren gaiarekin lotuz, begira esaldi hauek:

- (21) Haurra: Moxto nahi dut.
Ama: Moxto nahi duzu? (2;10)
- (22) Haurra: Bai! Oxo ona dago.
Ama: Oxo ona al dago? (2;10)
- (23) Haurra: Hau la [da] behia toleatxekoa [toreatxekoa]!
Amona: Behia toreatxekoa al da hori? (2;10)

Eman ditugun adibideetan helduak ez dio zinetako informazioa eskatzen haurrari, honek dioena ia-ia dagoen bezalaxe itzultzen baitio, baina galdera moduan, ahoskeran indarra paratuz. Esan duguna argi eta garbi ikus daiteke (23). adibidean eta gehienbat (22).ean, ez baita batere normala horrelako egoeretan “oso” bezalako mailakatazile bat erabiltzea bai/ez erako galderetan.

• *Maila morfosintaktikoa*

Artikurik gabeko hitzez mintzatu gara lehen, goitiago, baina gaia berriz ukitzea merezi duela iruditzen zaigu. Hitz onomatopeiko gehienak eta hizkera honetako hainbat hitz artikurik gabe erabiltzen direla esan dugu; hortaz, izen bereziek bezala jokatzaren dute, singularrean behinik behin:

- (24) Non da **mu** (*mua)?
- (25) Eman **brun-brun** (*brun-bruna)!
- (26) Nahi duzu **ñañan** (*ñañana)?
- (27) Hara han **pitxitxi** ‘katua’ (*pitxitxia)!

Maila honetan imitazioak ere garrantzi handia du; gehienetan haurra izaten da helduak dioena imitatzen duena (edo imitatzen saiatzen dena), baina begira ondoko adibide honetan zer gertatzen den:

(28) Aita: (*Ipuin bat ikusten ari dira*) Zer da hau?

Egoitz: Ku. (*Ahatea*).

Aita Ko-ko; eta hau?

Egoitz: Uau-uau.

Aita: Uau-uau.

Egoitz: Ñiñi. (*Berak beste irudi bat seinالاتuz*).

Aita: **Ñiñi** da, **ñiñia** hemen. Eta hau? Hau zer da, Egoitz? (1;06)

Haurraren emanalditik abiatuz aitak zabaldu eta osatu egiten du esaldia, haurrak egindako huts morfologikoa zuzenduz eta, garrantzi gehiagorik eman gabe, ekintza komunikatiboarekin jarraituz. Arrunt adibide polita da gurasoek, haurraren hizkuntzaren jabekuntzan zehar, dagokien paper zuzentzailea nola betetzen duten ederki azaltzen delako. Baina gurasoek ez dute beti jarrera zuzentzaile hori erakusten, eta frankotan haurrak gaizki esandakoa bere hala errepikatzen dute, batere zuzendu gabe.

Ikuspuntua beste gai batera eramanez, esan behar dugu hizkera honetan ekintzak adierazteko erabiltzen diren elementuak (cf. *aupa* ‘altxatu, jaso’, *punba* ‘erori’, *taka-taka* (*ttaka-ttaka*) ‘ibili’, e.a.) ez direla bene-benetako aditzak, sasiaditzak baizik. Zergatik deitzen diegu horrela? Bi arrazoiengatik nagusiki: alde batetik aspektu markarik onartzen ez dutelako (ikus .3); horrela begiratuta, forma bakarrekoak dira beti.

.3: aditzen eta sasiaditzen jokaera aspektu markak erantsita

Aspektu marka	Aditz arrunta	Sasiaditza
∅	begira	taka ‘eseri’
-tu	begira-tu	*taka-tu
-t(z)en	begira-tzen	*taka-tzen
-tuko	begira-tuko	*taka-tuko

Beste aldetik, horrelako partikulek ez dute adizlaguntzailerik onartzen, eta ondoan ematen ditugun esaldi hauek txartzat hartu behar dira:

(29) *Ni ttaka naiz

(30) *Nik punba dut

(31) *Nik kanka (‘kolpea hartu’) dut

(32) *Ni aupana naiz

Sasiaditz hauek, adizlaguntzailerik onartzen ez dutenez, aditz arruntek adierazten dituzten pertsona, zenbatasuna, tempusa, e.a. agertzeko beste baliabide batzuetara jotzen dute, eta horretarako “makulu” aditzen laguntza hartzen dute elementu horiek denak azaltzeko. Gehienetan ‘egin’ aditza da paper hau betetzen duena eta aditz “normal” bihurtzen dituen (cf. *lolo egin*, *taka egin*, *ñañan egin*, *aupa egin*, *tas-tas egin*, *punba egin*, ...), baina beste batzuk ere badira, esaterako, ‘eman’ (cf. *tas-tas eman*, *pa eman* ‘musu eman’, *ñañan eman*, ...), ‘bota’ (cf. *pa bota*, *punba bota*, ...), e.a. Era honetara aditz arruntak bezalaxe joka daitezke.

Sasiaditzen auziarekin jarraituz, esan behar dugu badutela beste ezaugarri bat: ekintza adierazten duen subjektua, kasuari dagokionez, absolutiboan edo ergatiboan ager daiteke. Esaterako, *ni ttaka* edo *nik ttaka* esan daiteke, *ni lolo* edo *nik lolo*, *ni aupa* edo *nik aupa*, *Egoitz plisti-plasta* edo *Egoitzek plisti-plasta*, e.a. Alde horretatik, uste izateko da, betiere absolutiboaren azpian egitura iragangaitza dugula eta ergatiboaren sakoan egitura iragankorra.

Horrela, arestiko adibide horiexek berak hartuz esan daiteke *ni ttaka* (*jarriko naiz*) edo horrelako zerbait dukegula absolutiboaren azpian, eta *nik ttaka* (*eginen dut*) edo antzeko zerbait, berriz, ergatiboaren azpian; edo pentsatzekoa da *Egoitz plisti-plasta* (*egiten ari da, sartu da, ibiltzen da...*) eta *Egoitzek plisti-plasta* (*egin/egiten/gingo du, nahi du,...*) izan daitezkeela, egoeraren arabera. Hona haurrak 1;07 (urtebete eta zazpi hilabete) adina duenean, grabaketa berean, minutu gutxiren buruan haurraren izebak ibiltzen dituen egiturak:

- (33) Ttaka zuk ere?
- (34) Egoitz, ttaka hemen.
- (35) Ttaka Bianditz?... Zu ttaka?
- (36) Arre-arrek punpa egin du, bai, punpa egin du!
- (37) ARe-aRe punpa eta Egoitzek ere bai, punpa egin du!

Hortaz, sasiaditzek malgutasun handia ematen diete subjektuei kasu-marka hartzeko garaian, batez ere ondotik doana isildurik uzten denean, orduan egitura mota batekoa edo bestekoa dela pentsatzekoa baita. Norbaitek pentsa dezake malgutasun hau haurraren ikaskuntza-prozesua zailtzeko edo bazterrak nahasteko bestetako ez dela, baina juxtu kontrako helburua du.

Umeak oraindik ezaugarri gramatikalak erabiltzen ez dakienean (ez deklinabideko markarik ez adizlaguntzailerik) ez dio halako kasu berezirik egiten hizkuntzaren alderdi formalari, gehiago oinarritzen da honen eduki semantikoa, une honetan –gramatikaurreko aro honetan, alegia– horri gehiago erreparatzen baitio (helduak garrantzi gehiago ematen diolako, jakina) marka morfosintaktikoei baino.

• *Hiztegi maila*

Haur hizkerako hiztegi bereziaz landa, hitz onomatopeiko ugari ibiltzeko joera izaten da garai honetan. Eta, jakina, joera honi sabailkatze-gertakariak gaineratzen badizkiogu arrunt berezia suertatzen da haurrekiko solas hau.

Dena dela, haur hizkerak duen hiztegi berezi hau erabiltzea ez da nahitaezkoa, aukerakoa baizik. Zenbaitetan, gainera, biak elkarren aldamenean ager daitezke, ondoko adibideetan ikus daitekeen moduan:

- (38) Non da **ttatta**? Non da **zapata**? (1;03)
- (39) **Erori** egin da! **Punpa** egin du! (1;07)
- (40) **Lolo** paratu behar al duzu? Paratu, paratu **lo**! (1;09)

Hiztegiaren erabilerari dagokionez, esan behar da usu erabiltzen dela aro aurregramatikalean, haurrak aro honetan “hitzak” baizik ikasi ezin ditue-

lako. Baina gero hizkuntzaren beste tresna linguistikoak (deklinabide-atzizkiak, izen sintagmari dagozkion determinatzaileak, adizlaguntzaileak, esalditxoak,...) alde-aldera moldatzen ikasten hasten denean, edota ikasten doan heinean, gutxituz joaten da hiztegi mota honen erabilera.

Hala ere, hizkera honetarik desagertzen azkenenak lau edo bost urte arte iraun dezaketen hitz solteak izanen dira seguruenik, hala nola *punba* edo *txitxi* ‘haragi’ edo horrelako besteren bat, agian. Hizkera honetako gainerako aztarna guztiak aipatutako adinerako jada txoil desagertuak daude.

4. Ondorioak

Gogoak ematen digu esandako guztitik segidan zerrendatuko ditugun ondorio hauek gutxienez atera daitezkeela.

- 1 *Euskarazko haur hizkerak eite berezia du.* Hizkuntza baten azpisistema bezala, izate propioa eta berezia du hizkera honek euskararen, agerian dauden bere-berezko ezaugarriak baititu hizkuntzaren hiru mailetan (maila fonetiko-fonologikoan, morfosintaktikoan eta lexikokoan). Alde honetatik, berezitasun hau euskararen nabariago da gure aldameneko beste hizkuntzetan baino.
- 2 *Haur hizkeraren erabilera hautazkoa da.* Guraso (edo heldu) batzuek baliatzen dute, baina beste batzuek, ordea, ez dute ibili nahi izaten. Dena dela, erabiltzearen edo ez erabiltzearen arrazoiak zein baitira ere (ez gara gai honetan gehiegi sartu), azken hitza norberaren baitan dago.
- 3 *Hizkera honen erabilera helduaren nahiari eta borondateari atxiki behar zaio.* Aurrekoarekin oso lotua dagoen beste ondorioetako bat da honako hau. Erregistro hau erabiltzen dutenen artean desberdintasun izugarriak daude, hizkera honetaz baliatzeko batzuek besteek baino joera handiagoa erakusten baitute, nolako lotura afektiboa edota hurbiltasun-maila lortu nahi den haurrarekin. Ikusi dugu, esaterako, gurasoen jarrera edo aiton-amonena arras desberdinak direla.
- 4 *Haur hizkerako ezaugarrien agerpena ez da erregularra eta sistematikoa.* Lan honen helburu nagusia haur hizkeraren aieka hau erakustea zen, eta argi azaldu dugu, gure ustez, arloz arlo aipatu ditugun ezaugarri guztiak –arlo morfosintaktikoari dagozkionak alde batera utziz– ez direla modu finko eta sistematikokoan betetzen; zehazkiago esan, ez direla beti, arlo fonetikoan esaterako, agertzen diren txistukari guztiak –edo sabailka daitezkeen beste kontsonante guztiak– bustitzen, edo hiztegiaren arloari lotuz, ez direla beti haur hizkerako hitzak bakarrak erabiltzen, askotan nahasian eta tartekatuz emateko joera dagoela bai-zik. Kontsonanteak sabailkatzeko edo haur hizkerako hitzak txertatzeko agertzen den malgutasuna eta askatasuna beti hiztunaren aiora dago, guztiz haren esku eta menpe.
- 5 *Haur hizkeraren erabilerak muga batzuk ditu.* Ez da nolnahi edo noiznahi erabiltzen. Haurraren adina abiapuntutzat harturik, esan daiteke hizkera hau gehien erabiltzen den unea oraindik ere “hizketan” hasi ez den garai horixe dela; beraz, haurraren gramatikaurreko aro

horretan kokatzen da bete-betean. Behin jauzi kritikoa eman eta hizkuntzaren berezko tresnekin moldatzen hasten denean (deklinabide atzizkien bidez hitzak elkarrekin behar bezala lotzen, hainbat determinatzaile erabiltzen, aditz laguntzaileak ematen, lokailuak agertzen, esalditxoak osatzen,...) hizkera honen erabilera gutxituz joaten da pixkanaka, denbora gutxiren buruan txoil desagertzen den arte.

Prozesu honek irauten duen denboran –hilabete batzuk, edo agian urteren bat edo beste– hainbat gorabehera izan daitezke, unearen eta hiztunen arabera, egoera jakin batzuetan errazago izanen da erabiltzea beste batzuetan baino, eta pertsona batzuek hartarako joera gehiago erakutsiko dute beste batzuek baino. Arrastoren bat edo beste geldi liteke laugarren urtean, baina goienez ere bost urte arte-edo iraunen dute horrelako aztarnek.

Bukatzeko esan nahi dugu, nahiz eta lanean zehar honetaz ez den deus aipatu, hizkera mota hau etxe-giroan eta etxekoen inguruan erabili ohi dela batik bat. Gaur egun, ordea, hezkuntza sistema gero eta goizago hasten denez, zenbait kasutan haurrek oraindik hitz egiten ikasi ez dutenean (haurtzaindegien kasua, esaterako), galde daiteke horrelako egoeretan erabil daitekeen ala ez, edo ona den erabiltzea ala ez, edo mesedagarri den ala ez, edo lagungarri izan daitekeen ala ez. Galderak hortxe daude, hausnarketarako bidea irekia dago. Eta guk azken galdera hauxe botatzen dugu: nork hartu behar du azken hitza eta hautua?

Oharra

* Lan hau MEC 033.130-0513/95 proiektuaren barrenean burutu da.

Bibliografia

Aurkerena, J., García, C., Zelaia, J. 1999. *Haur hizkera*. Bilbo: Gero/Mensajero.

Azkue, R. 1891. *Euskal-izkindea*, Bilbo: 24-25.

Ezeizabarrena, M. 1996. *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Hernández, F. 1984. “Actitudes lingüísticas parentales y desarrollo del lenguaje infantil”. *Infancia y Aprendizaje* 25: 35-59.

Lekuona, M. 1978. Lenguaje infantil. In *Eusko Etnografía*, 2, Kardaberaz bilduma, Tolosa.

López Ornat, S. 1994. *La adquisición de la lengua española*. Madrid: S.XXI.

Mahlau, A. 1994. El proyecto BUSDE: Corpus y metodología. In J.M. Meisel (ed.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Frankfurt am Main: Vervuet, 21-34.

MacWhinney, B. 1991. *The CHILDES project: Tools for analyzing Talk*. Hillsdale, New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.

Richelle, M. 1984 (1971). *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Herder.

Rondal, J.A. 1990. *La interacción adulto-niño y la construcción del lenguaje*. México: Trillas.

Serra, M., et alii. 2000. *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

Siguán, M. 1984. Del gesto a la palabra. In M. Siguán (ed.), *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Madrid: Pirámide, 16-32.

Snow, C., Ferguson, C. 1977. *Talking to children*. New York: Cambridge University Press.

Snow, C. 1986. Conversations with children. In M. Garman and P. Fletcher (eds.), *Language acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.

- Zamarripa, P. de** 1915. *Gramática Vascongada con Vocabulario Vizcaíno-Castellano y Castellano-Vizcaíno*. Bilbo: José A. Lerchundiren inprimategian.
- Zubiri, J. J.** 1995. Euskarazko haur hizkuntzaren ezaugarriak. *Huarte de San Juan, Lingüística y Literatura/Linguística eta Literatura, Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa* 1: 175-203.
- Zubiri J. J.** 1999. *Transkribaketak: Egoitz 1;03-3;00 (1991-1993)*. Jabego Intelektualeko Erregistro-Zenbakia: NA-3082.
- Zubimendi, J.R., Esnal, P.** 1993. *Idazkera liburua*, Eusko Jaurlaritz, Kultura Saila, Gasteiz: Argitalpen Zerbitzu Nagusia.